

125/23 PRENTSA OHARRA

3 HONDARTZETAKO KROSA DELA ETA, GELTOKI ALDAKETAK

Urriaren 8an, igandean, 3 Hondartzetako Krosa egingo da eta, hori dela eta, **9:30etik 10:45era** gutxi gorabehera honako aldaketak egingo dira Dbuseko hainbat linearen ibilbide eta geltokietan (ezin izango da Zurriolatik zirkulatu). Hona hemen aldaketak:

- **5-Benta Berri, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:**

Boulevard eta Gipuzkoa Plaza geltokiak kenduko dira eta bukaerako geldialdia **Okendo kalean** egingo da. Zubieta-San Martin geltokia zerbitzurik gabe geratuko da eta **Urbietta 6ra eta 20ra** eramango da, hurrenez hurren. Urbietatik aurrera Antso Jakitunetik, joango dira, Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik jarraituko dute, Pio Barojatik jaitsiko dira Antiguorantz eta beren ohiko ibilbideei helduko diete berriro. Zubieta Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 31 geltokiak ere kenduko dira.

- **16-Igeldo:**

Bukaerako geldialdia Okendo kalean mantentzen da.

8:30etik 9:30era eta 10:50etik 13:00era gutxi gorabehera (helmugaren muntaketa eta desmuntaketa direla-eta)

Antiguon, Funikular eta Satrustegi geltokiak kenduko dira eta **Wieswaden** kalera eramango dira (behin-behineko zutoina Brunet kalearekiko bidegurutzean).

9:30etik 10:50era (lasterketak irauten duen bitartean)

Antiguorantz doala, Bengoetxeatik, Idiakezetik, Askatasunaren Hiribidetik joango da, Urbietatik, Antso Jakitunetik, Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik jarraituko du; gero, Pio Barojatik jaitsiko da Antiguorantz eta Zumalakarregitik, Trento kaletik, Wieswaden kaletik (behin-behineko zutoina Brunet kalearekiko bidegurutzean) eta Igeldo pasealekutik joango da eta hortik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Zubieta-San Martingo, Sanserrekako (bi noranzkoetan), Satrustegiko, Funikularreko, Zubieta Plazako eta Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokiak kenduko dira.

- **33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio eta 45-Estaciones Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

Zubieta-San Martin geltokia zerbitzurik gabe geratuko da eta **Urbietta 20ra** eramango da. Urbietatik aurrera Antso Jakitunetik, joango dira, Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik jarraituko dute, Pio Barojatik jaitsiko dira Antiguorantz eta beren ohiko ibilbideei helduko diete berriro. Askatasunaren Hiribidea 31 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kenduko dira eta **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango da.

- **47-Atotxa Erreka:**

Antiguo alderantz, ohiko ibilbidea egingo du Ondarretaraino (jaitzierako azken geltokia). Iruña kaleko geltokian bere ibilbidea berreskuratuko du Atotxa Erreka alderantz. Satrustegi I eta II geltokiak eta Funikularrekoa kendu egingo dira. **Iruñara** eramango dira.

***Antiguo aldeko lineak (5L, 16L, 18L, 25L, 33L eta 45L): 9:30etik 10:25era** gutxi gorabehera Antiguotik Erdialderaino doazen autobus guztiek ezin izango dute Kontxa Pasealekutik igaro. Satrustegitik, Pio Barojatik, Izoztegitik, Pio XII.etik, Bizkaia Pasealekutik, Gernikako Arbolatik eta Foru Pasealekutik Etxaideraino helduko dira. Ondarretako geldialdia Esklabetan egingo da.

- **8-Gros-Intxaurrondo, 9-Egia-Intxaurrondo, 29-Hego Intxaurrondo Sur eta 42-Aldapa-Egia:**

Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta bukaerako geldialdiak **Idiakez kalean** egingo dira. Askatasunaren Hiribideko geldialdiak ere kendu egingo dira eta Idiakez kalera eramango dira. Kursaaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da.

- **13-Altza:**

Boulevard 3 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak **Idiakez kalera** eramango dira. Kursaaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da.

- **14-Bidebieta:**

Kurasaletako geltokia **Colón pasealekura** lekualdatuko da.

- **19-Aiete-Bera Bera:**

Gipuzkoa Plaza-Peñaflorida geltokia kenduko da eta bukaerako geldialdia **Okendo kalean** egingo du. Marianistetako geltokia eta Easo 27koa kenduko dira.

- **31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

Boulevardeko geltokia **Gipuzkoa Plazara** eramango da (14 linearen geltokia). Kursaaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da. Marianistetako geltokia zerbitzurik gabe geratuko da. Easo 27 geltokia **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango da.

- **21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:**

Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta bukaerako geldialdiak **Okendo kalean** egingo dira.

- **37-Rodil-Zorroaga:**

Kurasaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da.

Informazio gehiagorako, deitu 900 840 146 telefonora, edo www.dbus.eus webgunean.